

## **BONU JARRILLEROAren kanpainaren 5. edizioa**

**Aurten, bostgarren urtez, Portugaleteko Profesionalen eta Merkatarien Elkarteak, Udala babesle dutela erabaki dute udalerriko merkataritza lagundu eta kontsumoa ere sustatze aldera, Bonu Jarrilleroaren kanpainaren 5. edizioa abian jartzea.**

Horretarako, nahi duenak **Bonu Jarrilleroak** eskuratu ahal izango ditu herrian kanpainari atxikitako establezimenduetan **erosketak ordaintzeko**. Bonuekin Portugaleteko bezeroek **% 30 aurreztuko dute**.

**BONU JARRILLEROA**

ESTABLEZIMENDU ATXIKIA

EROS EZAZU HEMEN ZURE BONUA

EROSKETAK **30% MERKEAGO**

Abenduaren 10etik 31ra egindako erosketetan erabilzeko, kanpainari atxikitako edozein establezimendutan (\*edo bonuak agortu arte)

PREZIOA ORDAINTZEAN **10€** BALIOA EROSTEAN **15€**

Shop in Portu

Asociación Profesional Comercial de Portugaleteko  
Ayuntamiento de PORTUGALETEko Udala  
Merkataritzako Bulego Teknikoak

**Bonu bakarra, 15 eurokoa.** Bezeroak 10 euro ordaindu beharko du bonua eskuratzeko. Bonuak salgai egongo dira agortu arte.

Kontsumitzaileak bonuak **atxikita dauden establezimenduetan** eros ditzake. **Murriztapenak:** pertsona batek kanpainak dirauen bitartean gehienez **3 bonu osorik eros ditzake**. **Bonua** erosten den establezimendu berean erabili behar da derrigorrean.

Kanpaina **abenduaren 10etik 31ra** bitartekoa izango da. Bonu horiek agortu arte egongo dira salgai.

Kanpainari atxikitako establezimendu horien zerrenda [www.portugaletecomercial.org](http://www.portugaletecomercial.org), udalaren merkataritzaren webgunean egongo da ikusgai, [www.facebook.com/comercioportugalete](https://www.facebook.com/comercioportugalete) gunean eta establezimendu parte-

hartzailuetan. Halaber, jakingo dugu establezimendu horiek zein diren **Atxikitako Establezimendua** dakarren kartelari esker. Kartel hori erakuslehioko toki ikusgarrian egongo da.

**Aurreko edizioetan legez, ostalaritzak ere parte hartuko du, kanpainari atxikita.**

Kanpainaren aurrekontua **23.000,00 eurokoa** da. Izan ere, **4.000 bonu** kaleratuko dituzte, **udalerriko establezimenduei gutxi gorabehera 60.000 euroko salmentak ekarriko dizkietelakoan.**